

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### SEGURTASUN SAILA

## 1693

*EBAZPENA, 2025eko apirilaren 4koa, Segurtasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez iragar-tzen baita noiz argitaratuko den Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean 2025eko apirilaren 3ko Ebazpena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente kategoriako karre-rako funtzionarioak izendatzen dituen.*

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 27ko ebazpenaren hamaseigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik (ebazpen horren bidez, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agentearen kategorian sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egiten da; 2022ko urtarrilaren 14ko EHAA, 9. zk.), eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenen arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakitera ematea 2025eko apirilaren 3an jarri dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan Segurtasuneko sailburuordearen 2025eko apirilaren 3ko ebazpena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agentearen kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituen.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 4a.

Segurtasuneko sailburuordea,  
RICARDO ITUARTE AZPIAZU.